

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
4 positibo berri	1.619 hildako EAEn	3 positibo berri	528 hildako
2.336 positibo guztira*	6 UCIn, EAEn	5.483 positibo guztira	
*Hernanin 67, Astigarragan 23		Sendatuak: EAE 18.277	

## Erribera kultur etxea izango da protagonista, aurtengo Astigarraga Aldizkarian

Datorren ostiraletik aurrera egongo da eskuragarri, ohiko tokietan, Aldizkariaren 39garren edizioa. Kultur etxe berriarekin batera, beste hainbat gai ere landu dituzte; tartean, markesaren, bikarioaren eta alkatearen arteko liskar bitxi bat, elizako aulki baten inguruan.

### ASTIGARRAGA ALDIZKARIA

Hitzordu finkoa dauka uztailearen hasierarekin, urtero-urtero, Astigarraga Aldizkariak. Eta hutsik egin gabe, datorren ostiraletik aurrera egongo da eskuragarri 39garren edizioa, ohiko tokietan: Goxua, Valella eta Urumea Berriko Ogi Berri okindegi-etan, eta Ainhoa elikagai denda. Aldizkaria jasotzean, ohi bezala, 3 euroko aportazio sinbolikoa egitera animatu nahi

dituzte herritarrak, edo bakoitzak modu boluntarioan eman nahi duena, «herri ekimen honek aurrera egin dezan».

Aldizkaria eskuratzen duenak, herriko makina bat gai interesgarri topatuko ditu bere orrialdeetan. Horietan protagonista nagusia, aurtengoan, Erribera kultur etxe berria izango da. «Aldizkariaren artikulua nagusian, erreferentzia egin diegu aurreneko kultur etxea inauguratu zenetik gaur arte igaro di-


ren 30 urte hauei. Eta era berean, azaleratu ditugu kultur etxe berriaren identitate markak, eta espazio eta baliabide ezberdinen distribuzioa eta ezaugarriak», nabarmendu dute.

### Erreportaje interesgarri zein deigarriak, historia, natura zein gizarte gaietan

Kultur etxe berriaz gainera, beste hainbat gai interesgarri zein deigarri ere landu dituzte aurtengo aldizkarian. Historiarekin lotutakoak dira horietako hiru. Batetik, bildu dute markesak, bikarioak eta herriko alkateak izan zuten liskar bitxi bat, elizako aulki baten inguruan. Bestetik, Kako familiar buruzko erreportaje bat landu dute. Eta hirugarrena, Agirretolare baserriari buruzkoa da.

Naturarekin lotutako erreportajeek ere badute toki nabarmena, aurtengo aldizkarian. Beste hiru artikulua landu dituzte, naturaren inguruan. Horietako bat Aranzadi Zientzia Elkarteak landu du, eta bildu ditu herriko iturri eta askei buruzko erreportajeak. Joxe Mari Apaolaza albaitariak landutakoa da bigarrena: bertako arrazei buruzko artikulua didaktikoa osatu du berak. Eta naturarekin lotutako hirugarrena, Baserri Mahaiko kideek landu dute, beraien ibilbidea eta proiektu garrantzitsuenak aditzera emanez, baserriak eta baserriarrak sustatzeko lanean.

Eta hainbat dira, gizarte gaietan lotutako erreportaje sakonak ere, aldizkariaren 39garren edizio honetan. Horrela, hasteko, ezin zuen hutsik egin



Koronabirusak herriko gizarte bizitzan izandako eragina. Erreportaje bat eskaini diote, baita ere, herriko bi tabernetan izan den belaunaldi aldaketari ere: Beizama eta Ikatza tabernetan, hain zuzen ere. Eta azkenik, errekonozimendua egin nahi izan diete, herriko hiru bizilaguni: Joana Otxoa de Alaiza piano-joleari, Eduardo Aguado farmazeutikoari, eta Mari Jose Gaztelumendi txistulariari.

### Sagardoaren ekintzailtza, azkeneko 45 urteotan

Norbanakoak bakarrik ez, taldeak ere ekarri dituzte aurtengo aldizkaria, eta hainbat herri ekimenen ekarpenak eta kezak bildu dituzte: Euskaraldia, Herri Eskola, DBH Orain plataforma, Aztifemiak talde feminista edota Astigar dantza taldea.


Eta kulturaren arloan, beste bi erreportaje sakon: batetik, sagardoaren kulturaren mesedetan azkeneko 45 urteotan izan den ekintzailtza ibilbidea, Antton Arkak bildutakoa; eta bestetik, Urtzi Leonet idazlearen

eskutik, *Borroka itsasoan* bere azken lanaren aurrerapen bat.

### 39 urtez, «herriko bizipenak eta ekimenak biltzen»

39garren edizioa du Astigarraga Aldizkariak, eta aurrekoetan bezala, herriaren berri jaso eta zabaldu nahi die, bertako bizilagunei. «Aurtengo edizioa da lagin bat, herria pilatzen ari den historiarena; eta laguntzen du astigarrarrok balioa ematen, historia horri. Gure historiarekin eta kulturarekin berriro elkartzeko aukera ematen digu», nabarmendu dute. Helburu horrekin aritu dira, 39 urtez, «herriko bizipenak eta ekimenak» biltzeko lanean, «gure proiektu xume bezain pozgarri honetan».

Aldizkariaren lantaldeak eskertu nahi izan du, era berean, pertsona, erakunde eta elkarte guztien ekarpena: «denak dira gure kolaboratzaile, eta modu eskuzabalean egiten dute esfortzu bat, bere ekarpena egiteko dokumentu historiko eta kultural honi, herrian hain estimatua dena», adierazi dute. **K**



Jose Mari Telleria segurarrak 1982an egindako marrazki bat ere ageri da aurtengo Astigarraga Aldizkarian, 'Guztiok bat sagardoarekin' artikuluan.

**Funeraria VASCONGADA**  
Zure eskura  
24h-ko zerbitzua  
**943 376 980**  
Orkolaga, 2-4  
943 55 79 01  
HERNANI  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**Samitek**  
Bulego makinen salmenta eta mantentimendua  
[samitek@samitek.es](mailto:samitek@samitek.es)  
[www.samitek.es](http://www.samitek.es)  
TOSHIBA  
INFORMATIKA SAIL BERRIA  
**943 11 77 44**  
Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA  
Eguneroko ogia beti bikain  
Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Ezlagi poligonoa - Tel.: 943 55 00 89  
20120 Hernani

**GAUR** Fronteak alde egingo du gaur, eta horrekin batera, argitzera egingo du eguraldiak. Goizean goizeko lainoak desagertu, eta giro eguzkitsua izango dugu arratsaldean. Horri esker, tenperaturak ere gora egingo du, barnealdean bereziki. **Min.13° / Max.22°**

**BIHAR** Udako eguraldia espero da biharko: giro eguzkitsua nagusituko da toki guztietan, eta bero haundiagoa egingo du, barnealdean bereziki. Bertan, bero-lainoak sortuko dira arratsaldean, eta zaparradaren bat ere bota dezake. **Min.14° / Max.25°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Gaurko jarri dute odola emateko zita, oraingoan ere Goiz Eguzkin

18:00etatik 20:30etara izango da, jubilatuen egoitzan; baina ordua hartu behar da gaur goizean, jende pilaketa saihesteko.

**HERNANI ODOL EMAILEAK**

Hileko aurreneko asteartea da, eta beraz, odola emateko hitzordua daukate gaurkoan, herna-niarrek. Arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara izango da horretarako aukera, eta aurreko hilabeteotan bezala, Goiz Eguzki jubilatuen egoitzan egingo dute, Koronabirusaren pandemiaren eraginez.

Eta aurrekoetan bezala, odola eman ahal izateko, alde zuzenetik hartu behar da ordua, oraingoan ere. Horretarako, telefonoz deitu behar da gaur goizean zehar, 08:30etan hasi eta 14:00ak arte, zenbaki honetara:



Toki gehiago eta espazio irekiagoa daukate Goiz Eguzkin, estrakzioak egiteko.

943 00 78 84. Izan ere, jende pilaketak saihestu behar dituzte, eta txandak antolatuko dituzte Hernaniko Odol Emaileen elkarte-ko, horretarako.

Apirilean hasi ziren estrakzioak Goiz Eguzkin egiten, toki egokiagoa zelako, osasun alarma egoeran. Ordutik, hilero egin dituzte bertan. Izan ere, nabarmendu dutenez, «beharrezkoa» da odol emate lanekin jarraitzea, COVID-19ak eragin-

dako egoera honetan ere, «Odol Bankuak jarrai dezan beharrezko odola izaten, ospitaleak hornitu ahal izateko». Horregatik, herritar guztiak animatu dituzte, gaur goizean ordua hartzeko deitu, eta odola ematera.

Ekaineko hitzorduan, hilaren 2an, 42 izan ziren odol emateak, maiatzean baino 9 gehiago. Hori horrela, espero dute beste koxka bat gora egitea estrakzioek, oraingo txandan ere. **K**

## San Inazio jaia ere bertan behera, aurten

Beharrezko segurtasun neurriak bermatu ezin direla eta, Morkaiko elkarteak erabaki du jairik ez antolatzea Santa Barbaran.

**HERNANI MORKAIKO ELKARTEA**

Askok izaten dute ohitura, uztaila Santa Barbaran bukatzea, San Inazio eguneko jaiarekin. Baina aurten, festarik ez da izango hilaren 31n, bertan. Izan ere, San Inazio jaia bertan behera uztea erabaki du Morkaiko kultur elkarteak, urtero-urtero jaia antolatzen duenak.

Azaldu dutenez, egun horretarako «ezin dira bermatu, Koronabirusaren ondorioz bete behar diren segurtasun neurriak». Eta horren aurrean, suspentzeko erabakia hartu du Morkaiko elkarteak.

Orain arte, Urumea bailaran, bertan behera utzi dituzte herri eta auzoetako festa guztiak, eta beraz, ildo beretik jo du Morkaiko elkarteak ere, hartutako erabakiarekin. Gainera, espazio mugatua da San Inazio jaiaren gune izaten dena, Santa Barbarako eremua hain justu; eta horrek are eta gehiago zailtzen du beharrezko segurtasun neurriak bete ahal izatea. **K**

## Xaboi tailerrera, izenematea zabalik

**HERNANI URUMEA HERRIGUNEA**

Xaboi tailerraren bigarren saio bat antolatu dute Urumea Herrigunean, datorren iganderako, arratsaldeko 18:30etan. Eta parte-hartzaile kopurua mugatua denez, izena eman behar da, Instagram bidez, @\_koloreztatu\_ kontura mezu pribatua idatzita.

## Beste hiru partidu, gaur arratsaldean

**URUMEA ESKU PELOTA**

Gaur jokatu dira, 18:00etan hasita Hernaniko frontoian, Zikuñaga Papelera Torneoaren hiru final laurden. Bertan ariko dira Jara eta Etxarri hernaniarrak, eta Mujika eta Lizeaga astigarrak.

**Eskelak**

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

### ANTONIO ZUBIARRAIN OTXOTORENA

Nei zenez botako dizkit bertsoak orain... ?

**AKELENEA**

Astigarragan, 2020ko uztailaren 7an



### ANTONIO ZUBIARRAIN OTXOTORENA

**AKELENEAKO OSTIRALETAKO HAMAIKETAKO ZURE KOADRILA**

Astigarragan, 2020ko uztailaren 7an



Taula gainera igo ziren, konfinamenduan auzoa alaitzen aritu diren musikarietako batzuk.

## Segida izan dute Txantxillan, balkoietatik eskainitako kontzertuek

Konfinamendu garaia arintzen lagundu zuten musikariek, kontzertua antolatu zuen aurreko astean, Txantxillako bizilagun elkarteak.

**HERNANI TXANTXILLA AUZOA**

Asko izan dira, konfinamendu garaian, balkoietatik kaleak eta auzoak alaitzeko moduak. Eta Txantxilla auzoan, musika da falta izan ez dutena, itxialdiko hilabete horietan. Balkoietatik balkoira, instrumentu ezberdinekin, auzoa alaitzen aritu dira.

Eta orain, konfinamendua bukatuta, horri segida eman nahi izan dio Txantxillako bizilagun elkarteak: musikari horietako batzuk gonbidatuta, kontzertua antolatu zuen aurreko astean.

Aurrean aritu ziren Ainara Ortega eta Hego Haizea taldeko Sebi Ustarroz eta Joana Ortega; eta ondoren, oholtza gainera

gonbidatu zituzten Ander Loiar-te eta Haritz Ezeiza.

Ez zen faltatu oholtza gainean, ezta ere, Joakin Ortega Canario. Eta berak, ekainaren 27ko gauerdian ere ez zuen hutsik egin, Plazan: San Joanik izan ez bada ere, egun bereziak agurtu zituen Canariok, saxofoiarekin San Joan martxa eskainita. **K**

**IRAGARKI MERKEAK**

**Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrek emateko prest. Deitu: 618 119 781**  
**Langile bat behar da URGENTE-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA**, esperientziarekin, gidatzeko kameta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**  
**LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**